

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



## Sarrerak doan lortzeko aukera, 'Sareak' ikusteko

HERNANI  
KULTURA

4



## Mundarrok irabazi dio Hernaniri

ASTIGARRAGA-HERNANI  
FUTBOLA

7



## Errugbi barneratzaileari babesa, Ipintzako bertso-afariak

ASTIGARRAGA  
ERRUGBI INKLUSIBOA

4



## Atsolor metaforikoa, emakumeen bilgune

Astigarragako emakumeen sarea sortu eta sendotu nahi du Aztifemiak talde feministak. Eta horretarako, Atsolorra deitu duen egitasmoa jarri du mar-txan; garai bateko Atsolorretan bezala, emakumeak elkartzeko. Oraingoan, baina haur baten jaiotza ospatu beharrean, sare horrena ospatu nahi dute.

2-3

## Euskal errepublikaren alde aurkezpena gaur, EHUNek

HERNANI  
SAREA EHUNTZEN

5

### AGENDA

**GAUR** : Ipuin kontaketa  
17:30 : haurrentzat,  
liburutegian  
HERNANI

**BIHAR** : Irakurketa  
19:30 : Klubak, saio  
berria  
ASTIGARRAGA

Mari Luz Esteban



Amaren heriotzak  
librego egin ninduen

**ETZI** : Motxiladun  
17:30 : umeak eta  
zaintza, hizpide  
HERNANI

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko



# «Gure Atsolorra metaforikoa da, emakumeak elkartu eta ospatzeko gure ekintzen sorrera»

Emakumeen sarea sortu eta sendotzeko asmoz, Atsolorra izeneko egitasmoa jarri du martxan Aztifemiak talde feministak, Astigarragan. Joan den ostiralean egin zuten aurreneko bilera, eta helburua da, «emakume ezberdinen arteko harremana gauzatzeko espazioa izatea; eta hortik aurrera, sortzen joatea eta ekimenak martxan jartzea, dakiguna mahai gainean jarrita, bakoitzaren ezagutzatik». Konfiantzazko espazio bat nahi dute, besteekin seguru sentituz.

## ASTIGARRAGA AZTIFEMIAK

Atsolorra berreskuratu nahi du Aztifemiak talde feministak, Astigarragan; baina metaforikoa izango da haien Atsolorra: haur baten jaiotza ospatu beharrean, emakumeen proiektu eta ekintzen sorrera da ospatu nahi dutena, elkartuta. Emakumeen sarea sortu eta indartu nahi dute herrian, eta hori sustatuko duen espazioa izango da Atsolorra: «emakume ezberdinen arteko harremana gauzatzeko espazioa izatea nahi dugu, eta hortik aurrera, gauzak sortzen joatea eta ekimenak eta proiektuak martxan jartzea», nabarmendu dute. Joan den ostiralean egin zuten aurreneko bilera, udaletxean, dozena bat emakume elkartuta; eta horrelako Atsolor gehiago izango dira, «elkar entzun, elkarrekin hitz egin, dakiguna mahai gainean jarri, eta bakoitzaren ezagutzatik sortzen joateko».

Hala azaldu dute Belen Olaziregik, Igone Alcibarrek, Eli Laburuk eta Karmele Diazek. Aztifemiak taldeko kide dira lauak: «dozena erdi bat hasi ginen hau guztia mugitzen, eta orain 8-10 gabilta taldean. Herrian bada beste talde bat, Harituz elkarrea, indarkeria matxistaren inguruan jarduten duena; baina nahi genuen beste jarraipen bat izango zuen talde bat, bereziki formakuntzaren aldetik».

## «Sentsazioa geneukan, nahi genuela besteek karroa eraman zezaten, eta gu atzetik joan»

Horrela, martxoaren 8an elkartzen direnekin, hasi ziren deialdiak egiten: «baina ez zuten oihartzun nahikorik izaten. Proposamenak egin, eta erantzuna izaten zen ixiltasuna, edo ezin zutela. Sentsazioa zen, guk emakumeok ere, nahi genuela besteek karroa eraman zezatela, eta gu atzetik joan. Orduan, Belenek proposatu zuen, gutxiago izan arren, elkartu eta zerbait egiten hastea. Horrela abiatu ginen», azaldu dute.

WhatsApp bidez komunikatzen dira, batez ere: «gu helduek gara, eta egiten ditugu bilerak, baina gazteak egunero koarekin denborarik gabe ibiltzen dira, eta WhatsApparekin komunikatzen gara guztiok. Ez dugu helburu haundirik jarri; sare bat sortu nahi dugu, izango dena anitza, zentzu guztietan; adinaren aldetik, bide profesional ezberdinak egindakoak, familiarekin esperientzia ezberdinak izandakoak... Eta ulertuz feminismoan, gizarte osoan bezalaxe, emakume bakoitza bat garelara, eta bakoitzaren prozesua ezberdina dela. Amankomunean daukaguna da emakumeak garelara», adierazi dute.

**Gobara eta Atsolorra bezala, emakumeen bilgune**  
Emakumeen bilgune izan nahi



Eli Laburu, Belen Olaziregi, Igone Alcibar eta Karmele Diaz, taldearen oinarriak eta arbola dauzkaten karteekin.

**«Garai batean, bai gobara egiten Goiko Iturrin, eta bai Atsolorretan, elkartzen ziren emakumezkoak bakarrik; eta hori galdu egin da»**

du egitasmo berriak: «garai batean, bai gobara egiten Goiko Iturrin, eta bai Atsolorretan, elkartzen ziren emakumezkoak bakarrik; eta hori galdu egin da. Gizonezkoek badaukate beraien espazioa, elkartzeko; eta eduki nahi dugu espazio hau, emakumezkoak bakarrik elkartzeko».

Horregatik, nahi dute izatea partehartzea erosoago egingo duen espazio bat: «izan dadila espazio bat emakumeek sortutakoa, emakumeentzat. Gure buruarengan konfiantza sus-

**«Emakumeak bizi gara bakoitza bere mundutxoan, eta aberatsa da elkartzea eta konpartitzea. Eta elkar formatzea, nahi dugulako gure kriterioa izan»**

tatu behar dugu. Baliagarriak gara, baina ez dugu gure buruarengan sinesten; eta hori emakume gehienoi gertatzen zaigu, ez digute erakutsi geuregan sinesten. Konfiantzazko espazio bat izan behar da, non gure buruarekin eta besteekin seguru sentituko garen».

Ostiraleko aurreneko saio horretan, aurkeztu zuten zer egin duten orain arte, zergatik murgildu diren honetan, zer espero duten edota zer daukaten eskaintzeko; baina entzutera

ere joan ziren, bertaratu zirenez zer esan eta kontatu nahi zuten: «sarea sortzea da proiektua, elkar entzunez, elkarrekin hitz eginez... Emakumeak bizi gara bakoitza bere mundutxoan, eta aberatsa da elkartzea eta konpartitzea. Eta elkar formatzea, nahi dugulako gure kriterioa izan. Feminismoak motor asko izan ditzake, eta guk geurea sortu nahi dugu», azaldu dute.

## «Hezi gaituzte gizonak baino txikiago izateko, eta jakin behar dugu ez garelara txiki»

Aztifemiak taldeak diote, «urte askotako lan oso ona» dagoela biolentziaren kontra, Harituzen eskutik; baina horrez gain, zerbait gehiago egin nahi zutela: «nola lortu ahalik eta emakume desberdin gehienak elkartzea? Horretarako, guztion hitza entzun behar dugu; ez dugu planteatu nahi proiektu itxi bat, eta galdetu etorri nahi ote duten. Nahi dugu elkartu, eta proiektua denon artean eraikitzen joan. Bildu eta hitz egin, emakumeak

## Kronika

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 08 99  
688 660 714

**Lege gordailua:**  
SS-1469/2018  
**ISSN:** 2659-5036

**Eposta:**  
kronika@kronika.eus,  
astigarraga@kronika.eus,  
urumea@kronika.eus eta  
publi@kronika.eus.  
**www.kronika.eus**

**Lan-taldea:**  
A. Arbelaitz, O. Egaña,  
I. Goñi, L. Goñi, B. Los  
urumea, A. Moreno, J. Osa,  
M. Ramirez de Alda eta  
J. Zubitur.

### Argitaratzailea:



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 27 99  
**Eposta:** dobera@dobera.eus  
**www.dobera.eus**

### Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Saillburuordetzak)  
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**DOBERA BAZKIDEAK**  
**KRONIKALARIAK**

**TOKIKOM**





kume garelako zein gauza gertatzen zaizkigun, zer gertatzen zaien batzuei adin batean daudelako, eta zer besteei beste adin batean daudelako; zer gertatzen den jaietan, lantegian, etxean... Eta nahi dugu, elkartzeko feminismoa bizitzeko modu ezberdinak. Bata izan daiteke kalean, solidaritate ingurune batean, gizarte mailan. Eta bestea, norberarena da. Hezi gaituzte gizonetakoak baino txikiago izateko, eta guk geuk igo behar dugu, inork ez gaitu altxako. Txikitatsun horretan, jakin behar dugu ez garela txiki, pareko garela».

**«Bakoitzak gure prozesua daukagu, eta garrantzitsua da esperientzia ikasbide bihurtzea»**

Horretarako, aurreneko pausoa da «gure artean ere berdintasuna islatzea, askotan emakumeok ere klasistak baikara. Bakoitzak gure prozesua daukagu, eta garrantzitsua da esperientzia ikasbide bihurtzea. Daukagun potentzial hori aprobetxatu nahi dugu», diote.

Horrela, konpartituz eta elkar entzunez, nahi dute erai ki pixkanaka: «gu joan gara osatzen borradoretan bat, egin nahi ditugun ekintzekin. Baina ideia horiek guztiak gauzatzeko, indarra behar dugu. Gai bakoitzean egongo da jendea jantziago dagoena, eta bakoitzaren ezagutzatik jarri nahi ditugu ekimenak martxan. Ez dugu programa finkorik eratu nahi, eta seriotasun haundiegirik gabe, umore puntu batekin. Ospakizuna izan dadila. Noski, feminismoarekin lotuta. Badakigu aldarrikapenak egongo direla, eta guretzako ere garrantzitsua da hori; baina horrekin batera, herrian sare hori sortzen bada, emakume ezberdinen arteko harremana gauzatzeko espazio bihurtuko litzateke».

**«Ikasten badugu denok errespetuz hitz egiten eta jokatzeko, eta gure arerioari bere bidea jarrai dezan uzten, gauzak beste modu batera joango dira, eta matxismoak hor bukatuko dira»**

Jakin badakite, ez dela erraza emakume guztiak Atsolor horietara joan ahal izatea: «guztiok gabiltza beti oso okupatuta, eta arratsaldeetan, zaila da elkartu ahal izatea, haurrak zaintzen, oraindik ere, emakumeak egoten garelako gehien. Horregatik, sare sozialak lantzea oso komenigarria da. Eta bilera guztiak grabatu eta YouTubean igotzea daukagu buruan, besteek ere ikusi ditzaten, eta zerbait arotatu dezaten, posta elektronikoko bidez, esaterako», diote.

**«Kalean biltzen ginen hasieran, sinbolikoki ere hala nahi genuelako; kalea okupatu nahi genuen»**

Aztifemiak taldea martxan jarri zutenetik, hainbat bilera egin dituzte gaur arte; aurrenekoak, kalean: «hasieran kalean biltzen ginen, eguzkitan eta banku batean; sinbolikoki ere hala nahi genuelako. Kalea okupatu nahi genuen. Eta gero, negu partean, hasi ginen kultur etxean bilerak egiten», kontatu dute.

Joan den ostiralekoak ere, bazeukan sinbolismotik: «nahi genuen udaletxean izatean, bertan, denon etxean ere presentzia izateko», azaldu dute.

Taldearen ibilbide laburrean, dagoeneko egin dituzte hainbat ekintza. Puntualak izan dira ba-



Joan den ostiralean egin zuten aurreneko saioa, udaletxean, asmoa aurkeztu eta orain arteko ibilbidea azaltzeko.

**«Formakuntza saioetara, neska gazteak ere gerturatu ziren. Inflexio puntu bat izan zen»**

tzuk: «festetan Brigada Morea egin genuen, azaroaren 25ean ekitaldi polit bat Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna zela eta...». Baina Atsolorraren aurretik, beste ekintza potolo bat ere antolatu dute, landu nahi dute oinarrietako bati begirakoa: formakuntzari bideratutakoa, hain justu. Konfiantza indartzeko tailerra antolatu zuten, sei saiotakoa, eta oso pozik daude izan zuen harrerarekin: «oso partehartze ona izan zuten saioek, eta gainera, neska gazteak ere gerturatu ziren. Inflexio puntu bat izan zen. Orduetik, bakarka aldatu dira gauzak, pixka bat. Balio izan digu taldeko konfiantza lantzeko, pazientzia, errespetua, elkar zaintza,

**«Garrantzitsua da parte hartzea. Bestela, dena zerutik eroriko zaigu, euria bezala; bustiko gaitu edo ez»**

oreka... Identifikatu dugu, zein izan behar diren zutabeak».

**«Orain arteko esperientzia oso polita izan da; adin oso ezberdinetako jendea bildu gara, eta elkarlana oso aberasgarria izan da»**

Oinarri horietatik abiatu, «eta ematen duen arte» iritsi nahi dute: «asko zabaltzen bada, hobeto. Horrek esan nahiko du konfiantza hartzen ari garela gure buruarengan. Eta ikasten badugu denok errespetuz hitz egiten hitz egiten eta jokatzeko, eta gure arerioari bere bidea jarrai dezan uzten, gauzak beste modu batera joango dira, eta matxismoak hor bukatuko dira», nabarmendu dute.

Orain arte egindakoaren ilusiotik abiatuko dira, egitasmo berriarekin ere: «orain arteko esperientzia oso polita izan da. Adin oso ezberdinetako jendea bildu gara, eta egindako elkarlan hori oso aberasgarria izan da. Bereziki gazteen kasuan. Espazio bat sortzea, non beraien ahotsa entzungo den, beharrezkoa da. Garrantzitsua da parte hartzea. Bestela, dena zerutik eroriko zaigu, euria bezala, nahi gabe; eta bustitzen zaitu edo ez».

Horregatik luzatu diete gonbitea, emakume guzti-guztiei, aniztasunaren bila. «Atsolorra emakumeen bilgune izatea nahi dugu, eta bertan sortzen joan proiektu ezberdinak, elkarrekin. Akaso Atsolorra bera, garai batean egiten zen bezala, izan daiteke horietako bat, batak daki... Baina oraingo hau, Atsolor gisa ikusten dugu, emakumeok elkartuko garelako, nahi dugulako, zerbait polita gertatu dela ospatzeko, eta elkarri laguntza eskaintzeko. Gure jaioberria proiektua bera da». K

## 'Herstory y Artivismo' hitzaldia gaur arratsaldean, Nerea Aguadorekin

Kultur etxean izango da, 17:00etan. Artea aktibismo gisa jorratuko du, ikusteko nola lagundu duen emakumeen eskubideen alde borrokatzen.

**ASTIGARRAGA HITZALDIA**

Ostiraleko Atsolorraren ondoren, emakumeen eskubideekin lotutako beste hitzordu bat daukate astigarrarekin, gaur bertan. Izan ere, *Herstory y Artivismo; las mujeres estamos* hitzaldia eskainiko du Nerea Aguado Alonsok, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, kultur

etxeko lehenengo solairuan.

Komunikazio inklusiboan aditua da Aguado. Gaurko saioan, aurrena, *herstory* eza-gutzaz ariko da; alegia, historiak isilarazitako emakumeen lorpenez. Eta bigarren zatian, jorratuko du artea aktibismo gisa, ikusteko nola lagundu duen *herstory* ezagutzeko horrek, espiritu kritiko eta sortzailea-

rekin jorratuta, «emakumeon eskubideen alde borrokatzen eta emakumeon aurka erabiltzen diren indarkeriak agerian uzten», aurreratu du Aguadok: «frustrazio, inpotentzia eta injustiziaren aurreko amorru sentimenduak, eta baita superazioa, poza eta tinkotasuna, oso antzekoak dira duela 300 urte eta orain», dio.



Nerea Aguado Alonso, komunikazio inklusiboan aditua.



# Bertsoz girotutako bazkaria igandean, errugbi inklusiboaren alde

Igande honetan, errugbi inklusiboaren aldeko bertso bazkaria antolatu dute eta eguerdiko 14:00etan Astigarragako Ipintza sagardotegian izango du lekua.

**ASTIGARRAGA HERNANI**  
ERRUGBI INKLUSIBOA

Egun gutxi batzuk falta dira inauterietarako, eta motorrak berotzen hasteko asmotan, Hernaniko errugbi elkarteak, errugbi inklusiboaren aldeko bazkari bat antolatu dute. Ez da edonolako bazkaria izango gainera, bertsoz girotatutakoa izango da hain zuzen. Izan ere, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze izango dira kantuan.

Eguerdiko 14:00etan jarri dute hitzordua, Astigarragako Ipintza sagardotegian bertan. Sarre-  
rak 35 euro balio du.

**Aukera dago, sarrerak lortzeko, ipintza@ipintza.com helbidera idatziz edo 688 811 724 telefonora deituz**



Errugbi inklusiboko jokalariek, pasa den urteko ekaineko txapelketan.

Oraindik aukera dago izena emetako eta sarrerak lortu daitezke, bi modutara egin daitezke, emaila idatziz ipintza@ipintza.com helbide elektronikora edo telefono honetara deituz: 688 811 724.

## Bertaratzeko deia

Hernani errugbi taldekoek, bertaratzeko deia luzatu dute, errugbi inklusiboaren aldeko bazkari animatuz, eta giro paregabeaz gozatzeko.

Beraz, bertso bazkari animatu nahi duen orok, helbide elektronikora idatzi edo deitu. **K**



Maialen Lujanbio eta Unai Mendizabal izango dira igandean, bertsoan.

# 'Sareak' ikuskizuna ikusteko aukera izango da etzi, Organik Dantza Konpainiaren eskutik

Etzi, Sareak ikuskizuna eskainiko da Biterin. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da, eta oraindik sarrerak eskuragai daude, 7,5 eurotara. Testurik gabeko ikuskizuna da etzikoa.

**HERNANI SAREAK IKUSKIZUNA**

Organik Dantza Konpainiak, Sareak ikuskizuna eskainiko du etzi, arratsaldeko 20:00etan. Biterin izango du lekua emanaldiak, eta testurik gabea izango da.

Natalia Mongek zuzendutako lan honetan, antzinako arrantzaren inguruko istorioak kontatzen dira. «Nagusiki gizonen egindako lana bada ere, emakumezkoak dira portuan sareak konpontzen dituztenak». Hori dela eta, saregile horiei omen egin nahi die lan honek, sareen sinbologiari begiratuta. «Sareak lan honekin,

porturaino eramango gaitu bost emakumeren indarran, intimitate eta umorearen bidez». Emakume hauen papera, bost dantzari interpretatuko dute, hala nola, Pilar Andrés, Natalia de Miguel, Helena Golab, Begoña Krego eta María Martín.

Musikari dagokionez, konposizioa Laurentx Etxemendirena da.

## Hiru sarrera bikoitz zozketan

Bi sarrera bikoitz zozketatuko dira, galdera hau zuzen erantzuten dutenen artean: zenbat dantzari osatuko dute ikuskizuna? Iruzkina egin Kronikako webgunean erantzuna emanaz



Sareak ikuskizuna eskainiko da, etzi Biterin.

edo bulegotik pasa. Beste sarrera bikoitza berriz Dobera eta Kronikako bazkideen artean zozketatuko da.

Beraz, Organik Dantza Kon-

painiak, Sareak ikuskizuna ikustera gonbidatu nahi ditu herritarrek, antzinako arrantzako bizimoduak nolakoak ziren ikusi, entzun eta gozatzeko. **K**

## Ipuin kontaketa, gaur

**HERNANI IPUIN KONTAKETA**

Hernaniko kultu ekintzen egitarauan, ipuin kontaketa 15ean zela jartzen zuen, baina aldatu egin da eta gaur egingo da. 17:30etan, (3-4 urtekoentzat) eta 18:00 (5-7 urtekoentzat). Biterin izango da eta Pello Añorga izango da ipuin kontalaria. Hilaren 28ko ipuin kontaketa ere aldatu egin da, 25ean izango da eta Lur Kortak kontatuko du ipuina.

## Hausnarketa eta eztabaida, ostiralean

**HERNANI KONTRAKANTXA**

Ostiral honetan, Jai eredu kapitalistaren inguruko hausnarketa eta eztabaida antolatu da Kontrakantxa gaztetxean. Arratsaldeko 18:30etan emango zaio hasiera.

## Hezkuntza eskola, etzi

**HERNANI ZILEGI ESKOLA**

Ostegunean, hezkuntza eskola antolatu dute, arratsaldeko 17:30etan, udaletxeko areto nagusian. Gaia *motxiladun haurrak, zaintza eta arreta espe-  
zifikoa* izango da, eta bertan, hezkuntza adituak diren Esti Amenabarro eta Marian Bilbatuak izango dira azalpenak ematen. Ohiko moduan zaintza zerbitzua eskainiko da.

## Irakurketa kluba, bihar

**ASTIGARRAGA IRAKURKETA KLUBA**

Bihar, Amaren heriotzak librea egin ninduen liburuari buruzko irakurketa kluba eskainiko da, arratsaldeko 19:30etan, liburutegian. Saioa gidatuko duena Isabel Etxeberria izango da, eta parte hartze irekia eta doakoa da. Irakurketa klubaz gain, liburu baby kluba ere eskainiko da, goizeko 10:30etan.

## Repeska gaur eta etzi

**HERNANI BINAKAKO MUS TXAPELKETA**

Gaur eta etzi, Txantxangorri elkarte binakako mus txapelketako repeskak jokatuko dira. Gaurkoan, Javi eta Anderrek; Goñi eta Loyarte; Ramon eta Bixente; eta Alber eta Pedrok jokatuko dute. Etzi berriz, Bixente eta Koldo; Joxe Leon eta Bitor; Pablo eta Dani, eta Pidena eta Xixo.



# Euskal errepublikaren aldeko aurkezpena, gaurkoan

Euskal Errepublikaren aldeko aurkezpena eskainiko da gaur arratsaldeko 19:00etan hasita, Biterin, Sarea ehuntzen eskutik.

**HERNANI SAREA EHUNTZEN**

*Ehun*, hilaren 15ean Euskal Errepublikaren eguna antolatzeko jaio den mugimendu herritarra da. «Ekintza konkretu horren bitartez eta etorriko diren beste batzuen bitartez, Euskal Herriko, herriko, auzo, lantoki, lagunarte eta norbanakoak ehuntzeko bokazioa duen mugimendua gara». Eta gaur, Hernanin izango du lekua, *Ehuntzen* eskainiko duen aurkezpenak, arratsaldeko 19:00etan, Biterin izanik.

**Euskal Errepublikaz**

*Ehun* ekimenekoek adierazi dute, sinetsita daudela, Euskal



*Ehuntzen ekimena aurkeztu zutenekoa, Donostin. Argazkia: Jon Uribe*

Errepublika dela egunerokoan eragiten diguten arazo eta kezka konpontzeko beharrazkoa duten erraminta. «Espainia eta Frantzia ez bezala, Euskal Errepublika guztion eskubideak bermatzeko aukera zentzudunena da». Horregatik uste dute, eguneroko arazo konkretuen inguruan arituz Euskal Errepubli-

karen beharra modu esplizituan agerian jartzea beharrezkoa dela. «Euskal mugimendu errepublikazaleak arrakasta izango badu behetik gora egin beharko du goitik behera beharrean».

Bertratzeko deia luzatu dute *Ehun* taldekoek, «Gu hasi gara behetik *ehuntzen*. Hasi zaituzte ere gurekin» azpimarratuz. **K**

## Euskararen erabilera sustatzeko, Bota bertsoa! martxan da

Aurten ere, Totx garaia aprobetxatuz, Bota Bertsoa! bertso paperen lehiaketa txikia antolatu dute, euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

**HERNANI BOTA BERTSOA!**

Totx garaian sartuak gara, eta hori aprobetxatuz, Bota Bertsoa! bertso paperen lehiaketa txikia antolatu dute, Dobera Euskara Elkarteak, Iraulio Panttole Bertso Kabiakin elkarlanean. Aurten VI. edizioa izango da.

Egitasmoak hainbat helburu ditu, haien artean, sagardotegian giro euskalduna sortzea eta euskararen erabilera eragitea. Bertsoaren eta sagardotegiaren arteko harreman estua berreskuratzea, eta noski euskal kultura sustatu eta indartzea.

Parte hartzeko, hiru pausu

jarraitu behar dira, lehena, paperetan bertsoa idatzi, bigarrenik, izen abizenak eta telefonoa jarri, eta azkena, sagardotegietan dauden kutxatxoetan sartu edo dobera@dobera.eus helbidera idatzi. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna martxoaren 22a izango da. **K**

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Txotx denboraldiak eragindako zehar-kalteak, Hernaniko kaxkoan

2006 urtean, Kaxkoko bizilagunek egindako kexen aurrean, momentu hartako alkateak, «txotx baxuago baten apustua eginez», dibertsioa eta atsedena orekatzeko tresnak jarri zituen, eta hauek ez ziren hautsi beharko.

Udal Ordenantza, herritarren bizikidetasuna, eta bide publikoetako erabilera eta garbitasunaz arduratzen da.

Ez da beharrezkoa esatea, Hernani maite duenak, ezin duela jasan kaxkoan asteburu jasaten dugun mozkorkeria, desoreka eta «gamberraden» kultura,

eta lau hilabetez gainera.

Udalak, neurri bereziak jartzen saiatu da, eta haietako bat udaltzaingoaren zerbitzua. Zertarako? hauen prioridadeak, ez dira bizilagunok dauzkagunak.

Tabernetako musikaren bolumena oso altua da, mugikorraren eta karteren jabeak aldatu egiten dira, lapurretak direla eta, taberna kanpoan eta barruan erretzea, substantzia txarrak kontsumitzea, edonolako borroak, jendeak Atzieta kalean dauden autoen artean pixa egitea... gaizki, oso gaizki. Hala ere,

bizilagunon lehentasunak beste batzuk dira:

Ez dugu etxeko portalera iristeko zailtasunik nahi. Ez dugu lur zikin eta likatsurik nahi. Ez ditugu ez istilu eta ez oihurik nahi, ez baigaituzte lorik egiten uzten.

Eta honek guztiak aurrera jarraitzen du, urteak eta urteak goaz kexatzen eta gure arazoak ematen, hauek dira gure lehentasunak eta udaltzaingoarenak ez direnez, kasurik ez zaigu egiten, beraien lehentasunak beste batzuk direlako.

Horrela jarraitu dezakegu, Hernaniko Kaxkoko ordenaren eta kontrolaren arazoa konpondu gabe, eta honen erantzule bakarra gainera, alkatea da.

**Hugo Colindres Valenzuela**

## Dantza Festan apuntatzeko azken eguna

**HERNANI DANTZA FESTA**

Hernaniko haurrentzat antolatutako dantza festa da, eta txikiek bakarka edo taldeka hartu dezakete parte. Abesti bat aukeratu «ahal bada euskerazkoa, errespetuzkoa eta gustukoa», eta pendrive batean gorde. Izen emate fitxarekin, Biterin entregatu behar da. Apuntatzeko azken eguna gaur da, eta musika entegatzeko azken eguna berriz, hilaren 18an. «Animatu zuen seme-alabak parte hartzera!».

## Lehen sorospenetako hitzaldia, ostiralean

**HERNANI DYA IKASTAROKAK**

Ostiral honetan, lehen sorospenetako doako hitzaldia eskainiko da, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara bitartean, Inmakulada ikastetxean. Bertan hainbat gai jorratuko dira, horien artean, zauriak, erredurak, bularreko minak, konbultsioak... Eta ostiraleko hitzaldiaz gain, larunbatean, bihotz-biriketako suspertze tailerra eskainiko da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara bitartean. Familiari egiteko tailerra da, beraz helduek guztira 6 urtez gorako hiru umeekin eman dezake izena, hau ere Inmakulada ikastetxean izango da. Helduek 10 euro ordaindu beharko dute parte hartzeko eta 17 urtetik beheragoko gazteek doan egin dezakete. Izen emateko [www.DYAgipuzkoa.com](http://www.DYAgipuzkoa.com) webean sartu edo 943 46 46 22 telefonora deitu.

## Haurdunaldi tailerretan izena eman daiteke

**HERNANI HAURDUNALDI TAILERRA**

Ostiral arte dago aukera haurdunaldi tailerrean izena emateko. Ikastaroa otsailaren 19tik ekainaren 17ra bitartean izango da. Guztira 15 saio izango dira, eta asteazkenetan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eskainiko dira. 40 euroko kostua du tailerrak. Tailer honek hainbat helburu ditu, hala nola, haurdunaldiaren eta erditzearen anatomiar buruzko informazioa ematea, haurdunaldiaren faseei eta umekiaren garapenari buruzko informazioa ematea, eta beste hainbat. Harremanetarako edo izena emateko, idatzi [berdintasuna@hernani.eus](mailto:berdintasuna@hernani.eus) helbide elektronikora edo deitu 943 33 70 17 telefonora.

## Inauteriak iragartzeko kontzertua, igandean

**HERNANI INAUTERIETAKO KONTZERTUA**

Inauteriak gertu direla eta, Hernaniko Musika Bandak urteak daramatza inauterietako iragarpen kontzertua eskaintzen. Eta urte honetan ere ez dira gutxiago izango, hilaren 16ean, eguerdiko 13:15etan, udaletxe arkupean Inauteriak iragartzeko kontzertua eskainiko baitute. Hernanin ezagunak diren Tolosako inauterietako doinu osatutako errepertorioa eskainiko dute: Diana, Galtzandi, Pastelero, Isabelita... beste hamaika abesti alai abestuz.

## Sator Jator ikuskizuna laister, Oronan

**HERNANI ENE KANTAK**

Hilaren 29an, Ene Kantakek eskainitako Sator Jator ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiek. Dobera Euskara Elkarteak zozketa bat egin du Doberako bazkide eta Kronikalarien artean, eta irabazlea Maitane Barrenetxea izan da, bi sarrera irabazita. Oraindik sarrerak eskuragai daude Dobera eta Kronikako bulegoan.

**KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA**

Bidali zure CV-a, [otsailak 29ra](mailto:kronika@kronika.eus) arte:

[kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)  
Dobera Euskara Elkarteak  
Larramendi 11 behea  
20.120 HERNANI

**Kronika**

**DOBERA**  
EUSKARA ELKARTEA

**ESKATZEN DA:**

/ Euskera ondo menperatzea, hitzez zein idatziz.  
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.  
/ Iniziatiba eta enpatia.  
/ Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

/ Aktualitatearen jarraipena egitea.  
/ Kazetari lanetan esperientzia.  
/ Maketatze, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.  
/ Sare sozialak menperatzea.

**BALORATUKO DA:**

/ Urumea bailara ezagutzea.  
/ Doberako bazkide izatea.  
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.

**ESKAINIKO ZAIIO:**

/ Kontratu: amatasun bajari dagokiona.  
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

*Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratuko da.*

# Bostetik bost garaipen lortu dituzte Hernaniko taldeek asteburuan

Mutil nagusiek garaipen garrantzitsua lortu dute Laredoren aurka Kantabrian, Euskal Ligan, eta neskek Fortuna garaitu dute Gipuzkoakoan.

## HERNANI BOLEIBOLA

Asteburu ezin hobea izan dute Hernaniko boleibol talde guztiek, hobe esanda ia guztiek, kadeteetan elkarren aurka aritu baitziren asteburuan hernaniarrak. Lehenengo urtekoek ezin izan zuten bigarren urtekoek aurre zuten.

Euskadiko Ligan, mutilek irteera zaila izan zuten Laredora. Espero zen bezala etxeko taldeak partidu gogorra planteatu zuten, joko onrekin baino gehiago, aztikeriaz jokatu. Horrek

Hernaniko jokalariek nahastu zituen. Bere betiko jokoak egin beharrean, une askotan, partidutik kanpo zeuden. Partidu guztian zehar etxekoak izan ziren aurretik markagailuan, baina puntu erabakiorretan, azken puntuetan, maila haundiagoa dutela erakutsi zuten hernaniarrek. Emaizta 0-3koa izan zen Hernaniren alde, jokoetan 22-25, 22-25 eta 23-25 irabaziz. Partiduko gauzarik onena emaitza izan zen, joko aldetik berriz teknikoki huts egite asko egon ziren. Larunbatean dezente ho-

betu beharko du jokoak liderra etorriko baita Hernaniko kiroldegira.

## Gipuzkoako Ligan neskek aurrena daude sailkapenean

Gipuzkoako Ligan, senior neskek Donostiara joan ziren jokatzerak C.D. Fortunaren aurka eta kantxa zaila izan arren orokorrean, erraz gainditu zuten etxeko taldea. Emaizta ezin hobea eskuratu zuten, 0-3, eta jokoak ere 8-25, 12-25 eta 23-25, oso garbiak hernaniarren alde. Emaizta honekin neska seniorrak ligako lehenengo postuan daude.

Hasieran aipatu bezala, kadete mailan, lehenengo urtekoak eta bigarren urtekoak el-

karren aurka jokatu zuten pasaden asteburuan, eta noski berdinketarik ez dagoenez boleibolean, batek irabazi eta besteak galdu egin zuten. Bigarren urteko neskek argi utzi zuten zergatik dauden sailkapenean lehenengo postuan eta 3-0 irabazi zuten lehenengo urtekoek. Lehenengo bi jokoak bururatuak izan ziren eta 25-18 eta 25-17 amaitu ziren, baina hirugarrenean amore eman zuten gazteenek eta 25-10 irabazi zuten bigarren urtekoek.

## Infantil bi taldeak lehenengo hiru postuetan daude

Infantil nesketan aurreneko urtekoek Zarauzko Lizardi taldea hartu zuten etxean, eta azken asteetan bezala, Elsak zuzentzen duen taldeak gogotsu hasi eta amaitu zuten partidua.

Bisitariak ez zuten aukerarik izan eta 25-5, 25-12, 25-6 emai-

tzarekin hernaniarrek garaipen ona lortu zuten. 3-0ko emaitza honek lehenengo urteko neskek sailkapenean lehenengo postuetan mantentzen ditu eta horrek moralki indar handia ematen die konpetizioan hasi berri diren neska hauei.

Bigarren urteko infantilak ere partidu erraza izan zuten Summa Aldapeta 1 taldearen aurka. Donostiarrak bisitari bezala izan ziren kiroldegian eta 25-5, 25-12 eta 25-6 emaitzekin itzuli ziren etxera. Hasieratik amaierara arte etxeko taldea nagusi izan zen eta garaipen honekin, sailkapenean goikaldean mantentzen da talde hau ere. Bi talde hernaniarrak lehenengo hiruren artean daude eta hori entrenamenduak burutzeko baldintzak kaxkarrak dituztela kontuan izanik meritu handiko lorpena da neska hauek egiten ari direna. **K**

## ERRUGBIA

NSK. EUSKAL LIGA	La Unica-Landarbaso	104-0
MUT. SUB 18	Hernani Atletico-La Unica	13-14
MUT. SUB 18	Hernani Atletico-La Unica	24-5
MUT. SUB 14	Hernani Atletico-La Unica	0-32

## FUTBOLA

NSK. EUSKAL LIGA	Lakua-Hernani	0-1
MUT. OHOR. ERREG.	Oiartzun-Hernani	1-2
MUT. ERREG. PREF.	Hernani-Mundarro	0-4
MUT. ERREG. 1GO MAILA	Mundarro-Vasconia	4-0
MUT. JUB. NAZIONALA	Athletic-Hernani	9-1
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Hernani-Mundarro	3-2
MUT. JUB. 1GO MAILA	Mundarro-Martutene	1-1
MUT. JUB. 1GO MAILA	Hernani-Igeltegi	2-6
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Mundarro-Kostkas	4-0
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Touring-Hernani	1-1
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Arrupe-Hernani	4-1
MUT. KAD. 1GO MAILA	Mundarro-Sporting Herrera	1-3
MUT. KAD. 1GO MAILA	Danena-Hernani	4-2
NSK. INF. OHOR. MAILA	Touring-Hernani	1-3
MUT. INF. OHOR. MAILA	Hondarribia-Mundarro	5-2
MUT. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Oiartzun	0-1
MUT. INF. 1GO MAILA	Ekintza-Mundarro	3-1
MUT. INF. 1GO MAILA	Tolosa-Hernani	4-1
MUT. INF. TXIKIAK	Beti Ona-Mundarro	0-3
MUT. ALEBINAK	Mundarro-Texas	0-4
MUT. ALEBINAK	Orereta-Hernani	7-1

## ERREMONTE

1GO PARTIDUA	Goikoetxea V-Zaldua/Aldabe-Arruarte	35-29
MASTERRA BURUZ BURU	Barrenetxea IV/Urriza	30-29
3. PARTIDUA	Ezkurra II-Ion/Juanenea-Endika	30-40

4. PARTIDUA	Matxin III-Garces/Seguroa-Aizpuru	11-27
-------------	-----------------------------------	-------

## ESKUBALOIA

NSK. JUBENILAK	Mundarro-Zarautz B	31-18
NSK. JUBENILAK	Hernani-Eibar	15-39
MUT. JUBENILAK	Hernani-Arrasate	27-30
NSK. KADETEAK	Hernani-Ereintza	23-15
MUT. KADETEAK	Bera Bera-Hernani 1	22-28
MUT. KADETEAK	Hernani 2-Hondarribia	18-29
NSK. INFANTILAK	Elgoibar-Hernani	18-22
MUT. INFANTILAK	Hondarribia-Hernani 1	35-28

## BOLEIBOLA

MUT. EUSKAL LIGA	Laredo-Hernani	0-3
NSK. GIPIUZ. LIGA	Fortuna-Hernani	0-3
NSK. KADETEAK	Hernani 1-Hernani 2	3-0
NSK. INFANTILAK	Hernani 1-Lizardi	3-0
NSK. INFANTILAK	Hernani 2-Summa Aldapeta 1	3-0

## SASKIBALOIA

MUT. GIPIUZ. 1GO MAILA	Hernani-Donosti Dolphins	73-79
MUT. GIPIUZ. 1GO MAILA	Mundarro-Askatuak	66-69
NSK. GIPIUZ. 2. MAILA	Bera Bera Gros-Mundarro	48-58
MUT. GIPIUZ. 3. MAILA	Hernani-Inter de Mitente	35-88
MUT. GIPIUZ. 3. MAILA	Take Coach-Mundarro	58-42
NSK. JUNIORRAK	Beasain-Mundarro	35-42
MUT. JUNIORRAK	Hernani-Iraurgi	50-44
MUT. KADETEAK	Hernani-Eroibide Irun	57-20
MUT. KADETEAK	Mundarro 1-Easo Igeldo	25-88
MUT. KADETEAK	Beasain-Mundarro 2	61-82
MUT. INFANTILAK	Internacional-Hernani	30-59
MUT. INFANTILAK	Mundarro-Bergara Soraluze	34-62

## ESKU PELOTA

MUT. NAG. TRINKETEAN	Azkoitia/Pagola-Alvarez	15-40
----------------------	-------------------------	-------

MUT. NAG. TRINKETEAN	Arizmendi-Aldunberri/Gazteleku	40-26
MUT. JUB. TRINKETEAN	Oiartzabal-Mujika/Behar Zana	40-14
MUT. JUB. TRINKETEAN	Insausti II-Lasa/Oiarpe	34-40
MUT. KAD. TRINKETEAN	Oiarpe/Manterola-Urdanpilleta	40-19
MUT. KAD. TRINKETEAN	Behar Zana/Arluziaga-Alegria	38-40
MUT. NAG. UDABERRI	Altuna-Zugasti/Tolosa	22-8
MUT. NAG. UDABERRI	Gazteleku/Salaberria-Ortiz de Urbina	13-22
MUT. JUB. UDABERRI	Zumaia/Uitzi-Insausti II	13-22
MUT. JUB. UDABERRI	Oiartzabal-Lasa/Lapke	22-3
MUT. KAD. UDABERRI	Jara-Etxarri/Oiarpe	22-15
MUT. KAD. UDABERRI	Gailurrerantz/Arluziaga-Alegria	10-22
MUT. KAD. UDABERRI	Arabaolaza-Martin/Tolosa	9-22
MUT. INF. UDABERRI	Izurun/Gorrotxategi-Urdangarin	18-17
MUT. INF. UDABERRI	Oiarpe/Pascual-Azpeitia	9-18
MUT. INF. UDABERRI	Mundarro/Moral-Urrutia	18-9
MUT. INF. UDABERRI	Eple/Alberdi-Otaño	18-5
MUT. INF. UDABERRI	Tolosa/Iturbe-Elizazu	5-18
MUT. ALEB. UDABERRI	Arretxe-Alberdi/Kuku	16-12
IRURITAKO TXAP.	Pascual-Alberdi/Intxurre	3-18
ARDOI TXAPELKETA	Jon Jara/Lapke	3-18
ARDOI TXAPELKETA	Xabier Apaolaza/Barañain	18-14
PILOTARIEN TXOKOA	Jara-Peñalver/Iztueta-Etxarri	18-22

## PALA

NSK. EH ELITE MAILAKOA	Irazustabarrena-Arrieta/Isasmendi-Saez	30-13
NSK. EH IREKIA 2. MAILA	Adurtza 3/Olatz-Garazi	13-30
MUT. NAG. UDABERRI	Izurun/Hernani 1	24-25
MUT. NAG. UDABERRI	Altzarra/Arandia-Garmendia	25-17
NSK. JUB. UDABERRI	Tolaretxipi-Barrenetxea-Miner/Zugasti-Arraras	30-20
NSK. JUB. UDABERRI	Hernandez-Garmendia/Intxurre 1	10-30
NSK. JUB. UDABERRI	Martinez-Arruti-Alsua/Intxurre 2	8-30





Hernaniarrek ezin izan zuten Mundarroko eraso gelditu.

## Hernanik Anaitasuna eta Eibar Urkoren gorpila jarraitzen du

Ohorezko Erregionaleko taldeak 1-2 irabazi du Oiartzunen eta hirugarren jarraitzen du alde berdineraren aurrekoek ere irabazi egin baitute.

### HERNANI ASTIGARRAGA FUTBOLA

Hernanik garaipen garrantzitsua lortu du asteburuan Oiartzunen Ohorezko Erregional mailan. Talde oiartzuarra atzeko postuetan dago sailkapenean eta irabaztea garrantzitsua zen aurrekoen gorpila ez galtzeko. Munduatek zuzentzen duen taldeak ez zuen hutsik egin eta garaipena lortu zuen 1-2 Lekuona futbol zelaietan.

Aurreneko postuan dagoen Eibar Urkok eta bigarren postuan dagoen Anaitasunak ere ez zuten punturik galdu eta bi garaipen erdietsi zituzten. Honela, sailkapenean gauzak ez dira aldatu. Eibartarrek jarraitzen dute lehenengo postuan eta hernaniarrak bost puntura daude. Anaitasuna gertuago dago, bi puntura. Oraindik jardunaldi asko geratzen dira eta edozer gertatu daiteke.

Datorren astean Hernanik

Zubipen jokatu du Amaiak Baten kontra. Hauek ere goiko postuetan daude, seigarrenak, eta ez da partidu erraza izango.

### Mundarro derbian nagusi 0-4 Hernaniren aurka

Preferente mailan bailarako derbia jokatu zen, Zubipen, Hernani eta Mundarroren artean eta astigartarrak jaun eta jabe izan ziren azken emaitzan. Mundarro 0-4 nagusitu zitzaion Hernaniri.

Partidua hasi eta oso gutxira, bigarren minutuan Iñurrik Mundarro markagailuan aurretik jarri zuen. Hasierako minutu horietan golaren indarrarekin moreak nagusi izan ziren, gainera ordu laurdena bete aurretik Iñakik moreen bigarrena egin zuen. Oraindik denbora asko falta zen eta Hernanik ez zuen amorarik eman.

Egoeraren aurrean estutu egin zuen Hernanik nahiz eta

astigartarren ordena eta seriotasunagatik ez zuten aukerarik sortzerik izan.

Bigarren zatia ildo beretik joan zen. Hamargarren minutuan Iñurrik hirugarrena sartu zuen Mundarrorentzat eta minutu bakarraren faltan iritsi zen laugarrena eta azkena Marcosen eskutik. Emaitza honekin Mundarrok zazpigarren jarraitzen du, Rotetarekin berdinduta, baina bederatzigarrena urruti dago. Hernani berriz, hamabigarrena da.

### Nesketan garaipen ona Hernanik

Euskal Ligan Hernanik garaipen ona lortu zuen etxetik kanpo Lakuaren aurka. Azkenean gol bat nahikoa izan zen Hernanira hiru puntuak ekartzeko. Garaipenarekin bederatzigarren postuan sendotu dira neska hernaniarrak.

Gauzak ez ziren ongi joan jubel nazional taldearentzat. Athletic-ek bederatziko gol sartu zizkon eta 9-1 galdu eta gero 14garrenak daude sailkapenean 16 taldeetatik. **K**

## Mundarroko neskek sendo jarraitzen dute

48-58 lortu dute garaipena Bera Bera Grosen aurka eta bigarren jarraitzen dute Gipuzkoako bigarren mailan.

### ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOAIA

Mundarroko neskek Gipuzkoako Lehenengo mailara itzuli nahi dute eta asteburuan horretarako pauso bat eman zuten. Bera Bera Gros 48-58 garaitu zuten eta emaitza horrekin sendo jarraitzen dute sailkapeneko bigarren postuan. Tecnum eta Bergara-Soraluzerekin berdinduta daude sailkapenean.

Ez zuten zorte berdina izan mutilen taldeek. Lehenengo mailan bai Hernanik eta bai Mundarrok galdu egin zuten. Astigartarren porrota izan zen min haundiena egin zuena. Etxean jokatzeko zuten Cafés Aitona Askatuak azken sailkatuaren aurka eta irabazi beharreko



Hernanik galdu egin zuen.

partidua 66-69 galdu zuten. Donostiarren denboraldiko bigarren garaipena izan zen.

Hernanik ere etxean galdu zuen Donosti Dolphins-en kontra. 73-79 amaitu zen partidua donostiarren alde. Azkenaurretik Hernani, bederatzigarren sailkatura arte bi punturen alde bakarrik dago. Eta tartean Mundarro. **K**

## Leandro eta Ibon Miner eta Arrozpide finalera

Añorgan oso ongi aritu ziren osaba-ilobak eta bigarren geratu dira binakakoaren sailkapen fasean. Arrozpide eta Goenaga 3garren sartu dira finalera.

### EREÑOTZU-HERNANI BOLA

Ereñotzuko Leandro eta Ibon Miner bikotea eta Miguel Arrozpide eta Antonio Goenaga altzatarak osatzen duten bikoteak Binakako txapelketaren finalerako txartela lortu dute. Lehenengo faseko hirugarren eta azken tiraldian, Añorgan, Leandro eta Ibon osaba-ilobak ederki aritu ziren.

Bigarren eta hirugarren geratu ziren eta bigarren postuan sailkatu dira binaka, B taldean, finalerako txartela lortuz 240 brilarekin.

Miguel Arrozpide hernaniarra eta Antonio Goenaga altzatarra hirugarren sailkatu dira 237rekin eta hauek ere lortu dute datorren asteburuan Altzan jokatu den finalera sailkatzea. Bi taldeetatik bosna bikote sailkatu dira finalerako.

Nesketan Martxeli Kanflanka eta Nagore Miner ereñotzuarrrak ez dute sailkatzea lortu. Bi bikote dira sailkatu direnak finalerako multzo honetan; Bea Unzue-Aitziber Ugalde eta Naroa Arretxe-Ane Etxebeste.

### Binakakoa amaituta Lehendakari txapelketa

Binakakoa bukatu eta berehala ekingo diote bolariet, denboraldiko hurrengo txapelketari. Izan ere, igandean bertan daukate aurreneko tiraldia, Lehendakari Txapelketaren barruan. Seguran izango da estreinakoa, eta beste bost jardunaldi izango ditu: Zarautzen, Legazpin, Urnietan eta Aian. **K**

### IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun neska euskaldunak goizetan lan egingo luke etxeak garbitzen, umeak edo helduak zaintzen... Deitu: 637 394 893

Martxan dagoen okindegia alokagai. Interesatuak deitu: 644 319 054

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

### EGURALDIA

#### GAUR

Lainotuta egongo da eta euria egingo du. Hala ere, euri txikia izango da eta gau aldera mardulagoa izango da. **Min.10° / Max.14°**



#### BIHAR

Euria egiten jarraituko du eguerdira bitartean; euri gubxi egingo du, orokorrean euri txikia. Arratsaldean atertu egingo du. **Min.8° / Max.13°**



(euskalmet)

### TELEFONO ZENBAKIAK

**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAIINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

### FARMAZIAK

Egunez: **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**  
Goizueta: Nagusia 64 948 514353



# Hernaniko igeriketak zeresana eman du azken astean emaitza arrakastatsuekin maila guztietan

Iñigo Llopisek Tokioko Joku Paraolimpikoetarako txartela lortu du, Enaitz Goñik hiru urre leporatu ditu Gipuzkoako Txapelketan eta Luis eta Iñigo Goñik hiruna domina lortu dituzte Iraupeneko Espainiako Master Txapelketan.

## HERNANI IGERIKETA

Hernaniko igeriketarentzako aste oparoa izan da aurrekoa maila desberdinetan. Alde batetik, Iñigo Llopisek atek ireki zaizkio Tokioko Joku Paraolimpikoetarako. Bestetik, Enaitz Goñik lau domina lortu ditu, horietatik hiru urrezko, Gipuzkoako igeriketa txapelketan. Master mailan Luis eta Iñigo Goñik hiruna domina lortu dituzte, Luisek urrezko bat, Iraupeneko Espainiako txapelketan. Eta azkenik, Gipuzkoako Sarian Xabier Huitzi, Intza Pagola, Miren Uxue Garmendia, June Garmendia, Aitana Perez eta Kerman Urreta aritu ziren Andoianen.

Iñigo Llopisek S8 mailan txartela lortu du Tokioko Joku Paraolimpikoetarako 100 bizkar frogan. 1:08.25 denbora egin zuen Mallorcan, Son Hugo igerilekuan, 50 metroko igerilekuan eta denbora hori minima da Tokiorako. Gainera bere Espainiako errekorra apurtu zuen 31 ehunenekogatik. Beraz, Rion bezala Tokioko Joku Olinpikoetan ere ariko da igeri Llopis.

## Joku Para Olinpikoak eta Munduko errekorra urtarrila amaieran

Igerilari donostiar-hernaniarra sasoi betean dago. Urtarrilaren amaieran, AXA Txapelketan,

Valdemoron, Munduko Errekorra apurtu zuen 200 bizkarren, 25 metroko igerilekuan. S8 mailan 2:24.96ko denbora egin zuen.

## Enaitz Goñi, Espainiako Autonomien txapelketaren aurretik sasoi hartzen bederatzi dominekin

Enaitz Goñik ostiraletik igandera junior eta infantilen Espainiako Autonomien arteko txapelketan hartuko du parte, Euskadiko selekzioarekin, Las Palmasen. Bertan, lau frogetan ariko da, baina aurretik Gipuzkoako Txapelketan egin du igeri infantil eta absolutu mailan.

Bergaran antolatu zuten Gipuzkoako Txapelketa eta bertan bederatzi domina lortu ditu guztira; hiru urrezko domina, bi zilarrezko domina eta lau brontzezkoak. Horietatik bost domina dira erreleboetan lortu dituenak eta lau banakako frogetan.

200 estiloetan (2:17.82) eta 100 (56.22) eta 200 libreetan (2:01.20) geratu da Gipuzkoako txapeldun infantil mailan. Hiruetan bere markarik onenak egin ditu. 100 tximeletan zilarrezko domina lortu zuen 1:03.68ko denborarekin.

Erreleboetan, infantil mailan, hiru brontzezko domina eskuratu zituen Fortuna taldearekin eta absolutu mailan, erre-



Cristina Verbo, Iñigo Goñi, Lourdes Sánchez eta Luis Goñi errelebo dominekin.

lebo mixtoan, beste bi; bat zilarrezkoa eta bestea brontzezkoa.

## Luis Goñi Espainiako txapeldun 800 metroetan eta Monteverde taldeka

Igeriketan, Master mailan ere aritzen dira igerilari hernaniarrak. Pasa den asteburuan Oviedon Iraupeneko Espainiako Txapelketa jokatu da eta bertan Luis eta Iñigo Goñi aritu dira Toledo CN. Monteverde taldearekin.

Hiruna domina lortu dituzte hiru frogatan. Txapelketa hau 50 metroko igerilekuan antolatzen da eta 3.000, 1.500, 800 metroko distantziak daude, baita 4x200 errelebo mixtoak ere.

Luis eta Iñigo azken hiru frogan hauetan aritu ziren. Larunbatean 1.500 metroan, 45-49

urte mailan Luisek zilarra lortu zuen eta Iñigok brontzea 40-44 urte artekoan; 18:23 eta 18:56ko denborekin. Ondoren erreleboan jardun ziren Cristina Verbo eta Lourdes Sanchez toledarrekin batera. 160 urteko mailan lortu zuten zilarrezko domina, urrea lortzetik oso gertu, bi segundu eskasera. Taldeko lan esanguratsua egin zuten.

Igandean 800 metroan Luisek urrea lortu zuen 9:41eko denborarekin eta Iñigok zilarra 9:54ko denborarekin. Iñigo Kimbo Vallejoen alboan aritu zen parez-pare. Vallejo Moskuko eta Los Angeleseko Joku Olinpikoetan ibilitakoa da eta Hamar urte jarraian Espainiako txapeldun absolutoa izan zen 200 librean.

Aipagarria izan zen baita CN

Monteverdek taldeka lortu zuen garaipena bai mutiletan, baita nesketan ere. Hernaniarren puntuak baliogarriak izan ziren Espainiako txapeldun geratzeko lehenengo aldiz.

## Gipuzkoako Sarian ere emaitza onak

Igeriketarekin amaitzeko sei hernaniar aritu ziren, asteburuan Andoianen Gipuzkoako Neguko sarian: Huitzi, Intza Pagola, Miren Uxue Garmendia, June Garmendia, Aitana Perez eta Kerman Urreta. Urreta Konportan dabil eta besteak Hernani Kirol Elkarteko igerilariak dira. Dominak lortu zituzten eta Huitzik urrezkoa ere bai. Denboretan ere hobekuntzak izan zituzten igerilari guztiek. **K**

# Etxarri eta Iztuetak, Jara eta Peñalver kanporatu dituzte Pilotarien Txokoa

Donostian jokatzen den txapelketan bikote hernaniar-bizkaiatarrak 22-18 irabazi diote hernaniar-nafarrari eta finalerdietara sailkatu dira.

## HERNANI PELOTA

Orokorrean emaitza onak lortu dituzte asteburuan Hernaniko pelotariak. Partida aipagarriena bi hernaniarren artean jokatu zen eta kadete mailan. Donostian Pilotarien Txokoa txapelketa jokatzen ari dira eta bertan finalerdietarako sailkapena zegoen jokoa. Unai Etxarri atzelari hernaniarrak sailkapena lortu du, Iztueta aurrelari biz-

kaitarrarekin batera. Jon Jara hernaniarra eta Peñalver nafarra menderatu zituzten 22-18 eta semifinaletarako sailkatzea lortu dute.

Udaberri txapelketa ofizialean sei garaipen eta partidua bakarra galdu da. Arabaolaza-Martin bikote kadeteak bakarrik galdu zuten eta kategoria berdinean Jara-Etxarri bikoteak, hemen elkarrekin, eta Altuna-Zugasti seniorrek partidua

guztiak irabazi dituzte oraingoz txapelketa honetan.

Jon Jarak hirugarren partidua ere jokatu du Zizurren. Hemen lau'terdian galdu egin zuen finalaurdenetan.

## Trinketean lau garaipen eta bi partidua galdu dira

Trinketean seitik lau garaipen lortu dira. Seniorretan Pagola eta Alvarezek beste garaipen bat batu dute eta nahiz eta Arluziaga-Alegria kadeteek eta Insausti II-Lasa jubentilek lehenengo partidua galdu, hurrengo azken fasera sailkatzeko aukera guztiak mantentzen dituzte. **K**



Arabaolaza eta Martinek ezin izan zuten irabazi Tolosaren aurka.